



ARTEAREN HISTORIA

Proposatzen zaizkizun galdera-sorta hauetatik, bat aukeratu eta erantzun. Galdera bakoitzaren gehieneko balioa 2,5 puntukoa izango da.

1. GALDERA-SORTA

1. Eskultura erromatarra:

- Ezaugarri definitzaileak.
- Erretratu erromatarra: tipologiak, estiloaren bilakaera eta adibideak.

2. Arkitektura erromanikoa: Santiago de Compostelako katedralaren oinplanoa eta aurretiko bista:

- Egin lanaren analisisa (testuinguru historiko-kulturala, eraikitze sistema, oinplanoa, aurretiko bista, mintzaira formala, sinbolismoa...), eta esan zein diren lan horretan ikusten diren arkitektura erromanikoaren ezaugarri eta berezitasunak.

3. Errenazimentuko pintura. Leonardo da Vinci-ren “Harkaitzetako Ama Birjina”:

- Egin lanaren analisisa (testuinguru historiko-kulturala, gaia, zertarakoa, esanahia eta analisi formala), eta esan zein diren lan horretan ikusten diren errenazimentuko pinturaren ezaugarriak eta Leonardoren ekarpenak.

4. Modernismoa:

- Arkitektura modernistaren ezaugarri definitzaileak.
- Gaudí.

2. GALDERA-SORTA

1. Arkitektura grekoa:

- Ezaugarri definitzaileak. Ordenak.
- Antzerkia.

2. Eskultura erromanikoa: Zangozako Santa Maria Erret Elizaren Portada:

- Egin lanaren analisisa (testuinguru historiko-kulturala, gaia, zertarakoa, esanahia eta formaren analisisa), eta esan zein diren lan horretan ikusten diren eskultura erromanikoaren ezaugarri berezkoak.

3. Arkitektura barrokoa:



- Arkitektura barrokoaren ezaugarri definitzaileak: eraikuntza-elementuak, espazioa, motak, mintzaira formala, irizpide estetikoak...
- Bernini.

4. Pintura espresionista: E. Munch-en “Garrasia”

- Egin lanaren analisisa (testuinguru historiko kulturala, gaia, konposizioa eta analisi formala, sinbolismoa...), horren bidez nabarmenduz espresionismoaren berezko ezaugarriak.



REPERTORIO 1




Catedral de Santiago de Compostela.



"La Virgen de la Roca" (1483-1486). Leonardo da Vinci.

REPERTORIO 2



Portada de Sta. Mª la Real de Sangüesa.

"El grito" (1893). E. Munch.

